
Prentsaurrekoa

“Azkenaldian euskarara itzultitako literatura: bideak, joerak eta esperientziak”

EHUko udako Ikastaroa

NOIZ: 2013ko **uztailaren 22an** – goizeko **11:00etan**

NON: **Miramar Jauregia – Donostia**

EIZIEk “Azkenaldian euskarara itzultitako literatura: bideak, joerak eta esperientziak” ikastaroa antolatu du EHUren Uda Ikastaroen programaren barruan, uztailaren 22tik 24ra, Donostiako Miramar Jauregian.

Azken hamarkada hauetan euskarara itzultitako literatur eskaintza nabarmen handitu da. 90eko hamarkadan Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE) Literatura Unibertsala bilduma abiarazi zuenetik, itzultzaileak eta argitaletxeak ugaritu egin dira, eta euskararako literatur itzulpenaren eskaintza gutxi-asko egituratu bat osatzen hasi da. Orain, atzera begiratzeko eta balorazioa egiteko unea iritsi da. Ikastaro honetan, azken hogeita bost urteotan egindako ibilbideaz gogoeta egin nahi dugu: zer itzuli den eta zer ez; zergatik; eta nola. Horretarako, zenbait ikertzaile eta adituren azterketak entzun ahal izango ditugu, eta ibilbide horretan protagonista izan diren zenbait itzultzailearen esperientzien berri izango dugu.

Asko dira literatur itzulpenak kultur talde bati ekartzen dizkion onurak: itzulpenaren bitartez, irakurleek kanpoko literaturaren berri izan dezakete beren hizkuntzan; xede-hizkuntzaren literatur erreperitorioa handitu eta aberasten da; literatur hizkera eta baliabide berriak bere egiten ditu hizkuntzak, eta garatu eta hornitu egiten da horrela...

Azken hamarkada hauetan, euskal irakurleei egin zaien literatur eskaintza asko handitu da. Euskal idazleen produkzioa nabarmen handitu da, eta proportzio bertsuan egin du gora euskarara egindako itzulpenen kopuruak ere. Euskarara itzultitako literatur eskaintza 90eko hamarkadan sistematizatzen hasi zen. 1990ean, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE), Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, Literatura Unibertsala bilduma argitaratzen hasi zen, erdaretako hainbat obra garrantzitsu euskaratzeko. Eta gaur egun ere horretan dirau.

Ordutik hona, gero eta gehiago dira itzulpenak kaleratzen dituzten argitaletxeak, itzulpenetan espezializatutako argitaletxe berriak sortu dira, obra garaikideen egile-eskubideak erosi eta berehala euskaratzen dira... Euskal irakurleak duela hogeita bost urte baino aukera handiagoa du gaur egun kanpoko literatura euskaraz irakurtzeko: klasikoak zein modernoak, obra kanonikoak, modako izenburuak, askotariko generoak... Ikastaro honetan, azken hamarkada hauetan literatur itzulpenean egindako ibilbideaz gogoeta egin nahi dugu, gailendu diren joerak aztertu, eta bizi izandako esperientziak ezagutu.

Ikastaroa hiru bloketan antolatuta dago. Egun bakoitzean bloke bat landuko da.

Lehen eguna, uztailaren 22a, teorizazioaren eta gogoetaren eguna izango da. Zer itzuli da orain arte? Nondik? Zenbat? Zergatik itzuli da itzuli dena, eta zergatik ez da itzuli itzuli ez dena? Zer irizpideren arabera? Nork itzuli du? Zer pertzepzio dute irakurleek? Nolako harrera egiten zaie itzulpenei? Erantzuten al die itzulpenen eskaintzak irakurleen beharrei? Horrelako galderei erantzungo diete hizlariak egun osoan zehar. Bego Montorio itzultzaile eta EIZIEko kideak, lehenik eta behin, EIZIEk kudeatzen duen Literatura Unibertsala bildumaren ibilbidea azaldu eta baloratuko du: etapak, irizpideak, daturik esanguratsuenak... Miren Ibarluzea ikertzaileak, ondoren, Literatura Unibertsala bildumako obrei egindako hitzaurreak aztertuko ditu. Eguneko hirugarren saioan, Manu López Gaseni irakasle eta ikertzaileak kanonaz gogoeta egingo du: zer hautatu den azken hamarkada hauetan itzultzeko, zer irizpideren arabera, zer irizpide kontuan hartu beharko lirartekeen aurrerantzean... Lehen egun horretan, arratsaldean, mahai-inguru bat ere izango da, itzulpenen harrera baloratzeko. Mikel Aierbe irakasle eta kritikariak, Xabier Olarra itzultzaile eta editoreak eta Iban Zaldua idazle eta irakurle-txokoen gidariak itzulpenek irakurlearen ikuspuntuan hartzen duten lekuaz eztabaidatuko dute.

Bigarren eta hirugarren egunean ibilbide honetako protagonistek hartuko dute hitza: itzultzaileek. Hogeita bost urte inguruko ibilbide honetan itzultzaileek bildu duten esperientzia eta ezagutza transmititzea da helburua. Itzultzaileen esperientziok bi bloketan banatu ditugu.

Ikastaroko bigarren eguneko saioetan, itzulgaiari dagokionez berezitasunen bat ageri duten itzulpen lanak jorratuko ditugu. Nolako zailtasunak sortzen dira itzuli beharreko testua oso arrotza zaigun kultura batekoa denean? Edo erdara zaharkitu batean eta bertsoz idatzita dagoenean? Zer arazo sortzen dira komikiak itzultzean? Eta zer irtenbide eman dizkiete euskal itzultzaileek halako arazoei? Ibon Uribarrik Yasunari Kawabata japonieratik itzultzean izan duen esperientziaz hitz egingo digu. Bego Montoriok, zeinak komikiak itzultzen eskarmentu handia baitu, genero hori itzultzearen berezitasunez; eta Xabier Payák Calderón de la Barcaren *La vida es sueño Bizitza amets* bihurtzeko egin berri duen bideaz.

Hirugarren egunean, itzulpen-prozedurari erreparatuko diogu, eta ohikoak ez diren hiru egoera aztertuko ditugu. Itzulpenak lankidetzan egiteaz jardungo du Xabier Olarrak, eskarmentu handia baitu halakoetan (Alaa Al Aswani-ren *Jakobian eraikina*, 2012ko Euskadi sariduna, lau eskutara itzuli zuen Arantzazu Royo itzultzailearekin batera, esate baterako). Jon Alonso idazle eta itzultzaileak egilearen eta itzultzailearen arteko harremanaz hitz egingo digu, Jose Saramagoren *Historia do cerco de Lisboa* euskaratzean izan zuen esperientzia baliatuta. Eta autoitzulpena gaia hartuta, azkenik, Harkaitz Cano idazle eta itzultzaileak azalduko digu autoitzulpena, sarritan, ez dela benetako itzultzailea, interpretatzailea baizik, eta autoitzulpengintza berridazketarako tentazioa bihur daitekeela behin baino gehiagotan.

DATUAK:

Ikastaroaren izenburua: “Azkenaldian euskarara itzultako literatura: bideak, joerak eta esperientziak”

Antolatzailea: Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartea.

Laguntzailea: UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetza.

Zuzendaria: Isabel Etxeberria Ramírez

Data: uztailaren 22, 23 eta 24an.

Non: Donostiako Miramar Jauregian.

Ikasle kopurua: 40.

Kontaktua:

Isabel Etxeberria Ramírez – [isabeletx\[abildua\]gmail.com](mailto:isabeletx[abildua]gmail.com) – Tfnoa.: 646 700 816